

EUSKAL AKUARELARIEN ELKARTEAREN SORRERA

Bilbon akuarela-zaletasuna pinturarena bezain aspaldikoa da. Izan ere, Bilboko lehen pintoretzat hartzen direnak, Pancho Bringas, Eduardo Zamacois, Juan de Barroeta, Anselmo Guinea edo Adolfo Guiard, nabarmenen artean, akuarelista handiak izan ziren. 1882 urtean jadanik Bilboko Bizkaiko Institutuan egindako *Erakusketa Probintzialean*, “*Akuarelak eta Marrazki originalak*” izeneko atal berezia ezarri zen. Hirian Akuarela-ren teknika zuen inplantazioaren erakusgarri da 17 lanekin bertaratu zirela José Echenagusía, Carolina García Martínez, Anselmo Guinea, Antonio Hoffmeyer marrazkilaria, Macario Marcoartu, Juan Rochelt, Rafael Rochelt, Óscar Rochelt eta Eustasio Zarraoa artistak.

Hala ere, akuarelisten gogoak bideratu eta horien interesak defendatzeko, elkarte baten sorrerak hirurogei urte baino gehiago beharko zuen errealitate bihurtzeko. Gertakizun horren berri ematen dugu jarraian.

Agertokia

*Euskal Akuarelisten Elkarte*a pasa den mendeko berrogeigarren hamarkadaren erdian sortu zen, gerraosteko aldi gogorrean. Garaile eta garaituen arteko kontu-garbitzeko hamarkada izugarria, exekutatu, zigortu eta jazarri hamarkada amaiezina, kartzela eta erbesteratzea, lazeria mugagabea, gosetea, errazionamendua eta estraperloa, ustelkeria eta langileen esplotazioa, grebak, alderdi politiko eta sindikatuak debekatzea, polizia-kontrolak eta adierazpen faxistak, hau guztia ez zen nahikoa izan makurrarazteko Bilboko hiritarrek osatzen zuten gizarte liberal, langile eta positiboa, historian zehar etengabeko guda zibiletan murgilduta egon dena, nahiz eta beti burua atera, “*garaiezina*” tituluari ohore eginez.

Inguru-aldaketa eta gerrako hiru urteen ondorioak, nazioarteko isolatzearekin batera, herritarren itxaropenak subsistentziaren ideal bakarrera murriztu arren, bizitza ez zen gelditu eta jarduerak inertziara aurrera jo zuten. Etsipenean erorita zeuden beste espainiarrentzat bezala, bilbotarrentzat ere artea, zinema eta masa-ikuskizunak alderdi positibo bakarra izan ziren. Hamarkadaren amaieran dena errotik hobetuko da, eta 1948an Oteiza Bilbora etortzeak euskal artearen bilakaeran inflexio-puntua markatuko du. Urte batzuk geroago euskal arteak berreskuratuko ditu galduak bere ezaugarriak, inoiz bazituen ere.

Gerra-aurreko “*Euskal Arte*” indartsuaren eta gerraosteko gure arte autoktonoaren ezaugarri ororen desagertzearen arteko haustura azaltzeko erabili den argumenturik pisutsuena “*Erbestealdia*” hitza izan da. Gai honen inguruan dagoen ideiarik zabalduena hau da: zenbait artista gerran hil ziren, beste batzuek erbestera joan behar izan zuten, eta gurean gelditu zirenak erregimenaren jarraitzaileak eta tolerantak ziren. Horregatik ezinbestekotzat hartzen dugu azaltzea nolakoak ziren gure artisten gerra ondorengo egoera eta “*Espainia Berria*”n aurkitu zuten giroa. Hasteko, gerrarengatik bizia galdu zuten artistak bi izan zirela azpimarratu behar da (que recordemos): Álvaro Alcalá Galiano, 1936.ean Paracuellos de Jaraman fusilatua, eta Nicolás Lecuona, 1937.ean Fruizen hila, zauritu bat garraiatzen ari zenean lehergailu batek eztanda eginda. Gainerako artistak hondamenditik bizirik atera ziren.

Gerratik bizirik atera zirenetatik, erbestean hil zen bakarra Aurelio Arteta izan zen, Mexiko D F an tranbien talka baten ondorioz (1940). Beste artista batzuk ere Euskal Herritik urrun hil ziren, baina ez gerra zibilarengatik erbesteratuak bezala. Pascual

Escribanok eta Clemente Salazarrek Argentinara emigratu zuten 1920 eta 1929 hurrenez hurren, eta ibilbide artistiko arrakastatsua izan zuten hil ziren arte. Ramiro eta Ricardo Arrúe anaiak haur zirenean izeba batekin Donibane Lohizunera joan ziren bizitzera (1904). José Benito Bikandik Argentinara emigratu zuen 1925ean, eta bertan bizi izan zen hil arte. Julian Tellaeche Limara joan zen 1952an, eta 5 urtera hil zen.

Gerratik ihesi Frantziako muga pasatu zuten zenbait artista itzuli egin ziren hura amaitzean. Benito Berrueta han egon zen 1937 eta 1938 urteetan eta 1939an Bermeora itzuli zen. Elías Salaverría 1937an atera zen Espainiatik Bienabe Artíaren laguntzarekin, baina laster itzuli behar izan zuen, Academia de Bellas Artes de San Fernando-n 1944ean sartu baitzen. Bienabe Artía bera ere Hendaiara joan zen gerra deklaratu zenean, eta Parisen bizi ondoren Buenos Airesetik (1941), Boliviatik (1944) eta Txiletik (1947) pasatu zen 1948an Irunera itzuli zen arte.

Benetan erbesteratu zirenak “*Eresoinka*” euskal ikuskizun artistikoaren kideak izan ziren. Haien artean José Arrúe, José María Ucelay, Antonio Guezala, Julián Tellaeche eta Juan Aranoa zeuden. Patu gaiztoena José Arrúerena izan zen, bi urteko kartzelaldia jasan eta lan guztiak konfiskatu egin zizkiotelako. Beste lau artistek, ordea, ibilbide diferenteak segitu zituzten. J. Tellaeche ez zen Euskal Herrira itzuli, Parisen kokatu zen 1939an eta handik Bilbora bidali zituen bere lanak erakusteko (1946an *Sala Arte*”n eta ez “*Delsa*”n, Llano Gorostizak errorez dioen bezala). 1952an Paristik Limara joan zen eta handik bost urtera bertan hil egin zen. Itzuli zen lehena Juan de Aranoa izan zen (1940). Ondoren Antonio Guezala (1941). Ucelay, ordea, gure herrira itzuli aurretik Ingalaterran egon zen 1939tik 1949ra. Hauetako inork ez zuen errepresaliarik jasan eta beren ibilbideak jarraitu zituzten, A. Guesalza izan ezik, filateliara dedikatu baitzen. Kartzelaren lazeriak jasan zituztenen artean Ciga Echandi (1937-1939) eta Enrique Rentería ditugu. Lehena Eusko Alderdi Jeltzaleko kide nabarmena izateagatik. Bigarrena Bilboko Larrinaga presondegian aldi laburrean egon zen eta 66 artelan konfiskatu zizkioten, nahiz eta geroago itzuli zizkioten.

Bilbok bizi izan zuen gerraoste latza, sarritan, hamarkadaren jazoera artistikoetan ez sartzeko aitzakiatzat erabili izan da. Baieztapen gehienen arabera, egia da miseria sozialak eta ekonomikoak ez zizkiotela Bilbori eskaintzen bere garapen artistikoa eta merkataritza aurrera ateratzeko baldintzarik onenak. Baina gerra zibilaren ondoren interes handiko jazoera artistiko multzo bat gertatu zen, gerra zibila dela eta kaltetutako egitura artistikoa birsortzeko erabakigarria izango zena. Hau guztia, gainera, Euskadin eta Katalunian arte-merkatuaren susperraldi paradoxiko baten babesean.

Arte plastikoei dagokienez, gertaerak oso aipagarriak izan ziren. Elkartze jardueraren esparruan, gertaera kontuzkoena *Suizoren Taldea* sortzea izan zen. Talde hori gaur arte iraun duten eta hamarkada haren zehar oso aktiboak ziren bi erakunderen iturburua izan zen: *Asociación Artística Vizcaína* eta *Euskal Akuarelarien Elkarte*. Museoen esparruan, aipatzekoa da zentro baten inaugurazioa, *Arte Ederren Museoa*, gerra aurretik ziren bi pinakoteka apalak bateratzeko. Erakusketen esparruan, areto hauek dira aipatzekoak: *Sala Delclaux* (oraingo Delsa) 1948an desagertuta; *Sala Arte*, 1936an inauguratuta; *Sala Alonso* (1943); *Sala de Exposiciones de Artesanía Española* (1944) eta, noizean behin *Hotel Carlton*. Hauei proiektu modernista zuen Hiriko lehen galeria gehituko zaie 1948 urtean: *Sala Studio*. Hauen ondoan, bizitza laburragoko bestelako galeria txikiak ziren, Hiriko bizitza artistikoari arnasa eman ziotenak: *Salón Álvarez*, *Salón del Mueble*, *Salón Albia*, *Galería del Mueble* edo *Bar la Bohemia*.

Gerrako diaspora ondoren, arian-arian normalizatzen ari zen jarduera hau guztia kontrolatzen eta babesten, aipatzekoak dira *Bizkaiko Kultura Batzordea* berriak, bere bekak emateko Araudiarekin, Arte Ederren Erakusteka Probintzialak eta makina bat jarduera. Jarduerok zentsura inkisitoriala, biltzeko eskubidearen debekua eta poliziaren presentzia saihestu behar izan zuten. Baita kritika artistikoa egiteko hizkera frankista erabiltzen zuten baimendutako hiru egunkari bakarrak ere: *El Correo Español*, *El Puebla Vasco*, *La Gaceta del Norte* eta arratsaldeko *Hierro*, erregimenaren kontrolpean.

Alderdi negatiboen artean aipatzekoak dira zenbait artistaren heriotza eta erbesteratzea, *Asociación de Artistas Vascos* delakoaren desagerpena, oraindik horren motiboak ez badakizkigu ere, *Círculo de Bellas Artes y Ateneo* delakoaren gorabeherak eta desegitea, eta *Unión-Arte* taldearen noizbehinkako agerraldiak. Azken honek Errepublika garaian burutu zituen urteko erakusketak aldiari-aldiari berreskuratuz zituen, nahiz eta 1947an VIII. Erakusketa Kolektiboa burutu ondoren desagertu zen.

Suizoko Taldea

Suizoko Taldearen jatorria, garapena eta desegitea gogora ekartzeko ez da hau lekurik egokiena, gaiari buruzko bibliografia oparoan ondo jasota daudelako. Baina *Euskal Akuarelarien Elkartearen* jatorria ulertzeko aipatu beharrekoa da, handik sortu zelako.

José María Quintana, Nicolás de Zubigaray, Juan de Aróstegui Barbier artista amateurak eta Arturo Martínez Taubmann akuarelista eta marrazkilaria Arenaleko *Bar Pacho* desagertuan gerra osteko larunbat arratsaldeetan egiten zuten tertuliaren baitan sortu zen taldea. Beste artista amateurren zerrenda osatzen hasi ziren tertuliara erakartzeko asmoarekin. 1940 urteko azken larunbateko bileran *Café Suizora* aldatzea erabaki zuten, leku zabalago eta lasaiagoa zelako. Hortik hartu zuten izana.

Aróstegui kontatzen duenez, “*Astetik atera bertaratzen zirenen kopurua gero eta handiagoa zen, bai eta bileretara aurkezten ziren lan-bildumak ere. Asuntua ez baitzen bakarrik hitz egitea, baita etsenpluaren bidez predikatzea ere, aurreko astean amaitutako notak eta koadroak bileretara eramanez*”. Nahiz eta *Café Suizo* ixteagatik taldeak garai alderraia izan, tertuliako artista kopurua hasten eta hasten ari zen, eta laster erakusketa kolektibo bat burutzea otu zitzaion. Erakusketa *Salón Delsan* gauzatu zen, Isidoro Delclaux-ek 1909an zabaldu zuena, Gran Vía kaleko 18.ean. Editatu zen katalogoan agertzen denaren arabera, aukeraketa zorrotzaren ondorioz 13 artistak besterik ez zuten erakutsi, olio, akuarela eta marrazkien artean 54 obrekin. Hau da, *Suizoko Taldearen* lehen erakusketetatik akuarela presente egon zen, Maria Teresa Aguirre, Juan de Aróstegui, Arturo Martínez Taubmann, José Suárez eta Jesús Uribe pintoreen bidez.

Tertulia *Carlton Hotelean* erosoki kokatuta, partaideen kopurua handitzen joan zen, eta lehen erakusketatik urte betera bigarren bat antolatu zen, hau ere *Delsa Aretoan*. Hautaketa kalitate handiago eskatu zuelako, 21 pintore sartu ziren, baina 44 obrekin. Hautatuak honako hauek izan ziren: María Teresa Aguirre, Matías Álvarez Ajuria. Diodoro Anduiza, Juan de Aróstegui, J. M. Babío, María Luz Barasorda, Javier de Bengoechea -geroago *Bilboko Arte Ederren Moseoaren* zuzendari izango zena-, Enrique Besora, Jesús Cristóbal, José María Escauriaza, Michel Ferrer, Antón Santafé Largacha, José Lorenzo Solís, Antonio Otaño, José María Quintana, Ricardo Ruiz Blanco “Caricardo” - *Unión-Arte* taldearen burua-, Jesús Uribe, Nicolás de Zubigaray, Fernando eta Vicente Montilla. Juan Bayón Salado (*Bay-Sala*) ez zen hitzordu horretara azaldu, prestatu zituen lanak salduak zituelako.

Taldearen jarduerak 1943 arte ugaltzen joan ziren, dudarik gabe aipatutako bi erakusketetan jasotako harrera ona eta kritika adeitsuagatik. Modu horretara, erakusketa hauek burutu zituzten: bat apirilean Zaragozan, beste bat abuztuan Donostiako *San Telmo Museoan* eta irailean *Delsa* Aretoko tradizionala. Bereziki gogoratzekoa da Zaragozako *La Lonjan* egindakoa, *Euskal Artearen Erakusketa* bihurtu zena, non ohorezko tokian agertzen baitziren Zuloaga eta Salaberriaren obrak, bai eta Urrutia, Martiarena, Olasagasti, Olave, Aldecoa, Apellániz, Menchu Gal, etabarrenak ere. Okasio honetarako aukeratuak izan ziren *Suizoko Taldearen* kideak hauek izan ziren: María Teresa Aguirre, Álvarez Ajuria, Anduiza, María Luz Barasorda, Babío, Bay-Sala, Besora, Aróstegui, Canales Herrera (*Nino*), Escauriaza, Ferrer, Largacha, Legórburu, Matínez Taubmann, Mendaza, Otaño, Quintana, Rodet Vila eta Uribe.

Beste aldetik, Delclauxen erakusketan Taldean estreinakoz agertzen dira etorkizun oparoko zenbait artista, kritikak goraiapatuko zituenak: Federico Echevarriaren ausartasuna, Lorenzo Bosqueren paisaia ederrak eta Lorenzo Solísen pintura, "*agian denen artean gehien nabarmentzen dena*". Antonio Merino, erretratugile bikaina, taldean ere agertzen zen. Eta honekin batera Jesús Rafael Basterrechea arkitektoa, Antonio Butrón, M. L. Bazal, Luis Bea, Benito Elorriaga, Tomás Santiago Álvarez, Ángel Serrate eta Floro Urquijo Álvarez.

1944 urtean *Suizoko Taldeak* bere *IV. Erakusketa Kolektiboa* burutu zuen, azkena izango zena, berehala *Asociación Artística Vizcaína* bihurtuko baitzen. Honen aurretik, 20 urte lehenagotik *Asociación de Pintores y Escultores* elkarteak antolatzen zuen *Salón de Otoño de Madrideko XVIII. ediziora* agertu zen Taldea. Ondoren, 1945eko Apirilaren 14ean Zaragozako *Sala Macoyn* egin zuen erakusketa, *Asociación Artística Vizcaína* jadanik gauzatu zegoenean.

Taldea jabeturik zegoen Bizkaiko bizitza kulturalen parte hartzea beharrezkoa zela, kontuan izanik Korporazioek "(...) *duela urte asko ez dutela artista bakar bat ere pentsionatu, azken hamar urteotan ez dela erakusketarik egin haiek babestuta, eta hau gutxi balitz, duela zortzi bat urtetik hona Atxuriko "Escuela de Artes y Oficios" en eskaintzen ziren modelatu, pintura eta marrazketa irakaskuntzak galduak ditugula*"; "*gure erregioaren artea dagokion benetako lekura, hau da, gure patriaren lehenengoan artera jasotzeko*" erantzukizuna bere gain hartuta.

Euskal Akuarelarien Elkartearen sorrera

Suizoko Taldeari buruz hitz egitean adierazi den bezala, pintore amateurren kolektibo honetatik sortu egingo da, bilakaeraz, *Asociación Artística Vizcaína* (1945), eta honen baitan "*Euskal Akuarelarien Elkarte*" (1945) ere. Elkarte kultural bi hauen prozesu eratzaillea, ordea, oso bestelakoa izan zen, nahiz eta biak jatorri bera izan. *Asociación Artística Vizcaína Suizoko Taldearen* ordezkaria da, eta elkarte kulturalaren etorkizunari buruzko barne hausnarketa eta eztabaida prozesu baten ondoren, 1944 urteko Apirilean Estatutuak idatzi eta 1945eko maiatzaren 9an Batzar Eratzaillearen bidez sortu egiten da. *Euskal Akuarelarien Elkarte*a, ordea, modu askoz espontaneoagoz sortzen da, jarraian azalduko dugun bezala.

Aróstegui Barbier-ek "*La Pintura Vizcaína de la Postguerra*" bere obra ezagunean esaten duenaren arabera, Bilboko Gran Vía kaleko *Delsa* Aretuan, 1943an *Suizoko Taldeak* bere *III. Erakusketa Kolektiboa* egin zuenean, akuarelista haientzat ez zen inolako egunkari-aipamenik egon. Ez aipatze horrek Arturo Martínez Taubmann akuarelista mindu egin zuen, eta Bilbon baimenduta zeuden hiru egunkarietako (ez da

aipatzen zein) baten zutabegile anonimoari zuzendu zitzaion. Kritika egin zuen andereñoak azaldu zion akuarelari ez ziola inongo aipamenik egin “*arte txiki*”tzat jo zuelako. Halako bidegabekeriaren aurrean, berehala pentsatu zuten *Suizoko Taldearen* akuarelisten taldea sortzea, hau da, Taldearen baitan halako sail berezia sortzea, nahiz eta kolektibo berri honek urte bete baino gehiago behar izan zuen gauzatzeko.

Lehenago aipatu dugu Bilbon XIX. mendearen erdialdetik akuarela ospe nabarmena zuela, San Fernando-n ikasitako lehen belaunaldiko euskal artistei esker, batez ere Erroman bekatutakoei edo hauekin harreman estua izandakoei esker. Akuarela-teknikarako Erroman zegoen grina Creuseko Mariá Fortuny akuarelista apartari zor zitzaion. Honek akuarela-teknikaren maila artistiko eta ekonomikoa goratasun pentsaezinetara eraman zituen, berak modan jarri aurretik. XIX. mendeko bigarren erdian “*mundu guztia Fortunyk bezala pintatu nahi zuen*”.

Euskaldunen artean, akuarela kopuru garrantzitsua pintatu zuten, besteren artean, artista hauek: Pancho Bringas, Eduardo Zamacois, Juan de Barroeta, Anselmo Guinea, Adolfo Guiard, José Echenagusía, Ignacio Ugarte, Rochelt-tarrak, Amann-tarrak edo Aurelio Arteta. Baina Frantziako hiriburuko akademitan teknika hau praktikatzea ohikoa ez zelako, noizean behin pintatu zuten bertan hezitakoak, hala nola, Darío de Regoyos, Ignacio Zuloaga, Pablo Uranga, Francisco Iturrino, Manuel Losada edo Juan de Echeverría. Bestetik, zenbait iturritan Bilboko bildumazaleak aipatzen dira, hildako akuarelista espainiar handi batzuen, Fortuny barne, obrak zituztenak, baita akuarelista garaikideenak ere, hala nola Francisco Bonnín kanariarrenak, Esteve Botey madrildarrenak edo Sabaté Jaumá eta Miguel Farré kataluniarrenak. Ahaztu gabe gerra aurreko Bilboko galerietatik sarritan pasatzen zutela Ruiz Morales, Barón de Myrbach, Drudis Biadas edo gure José maría Amann bezalako akuarelistak.

Suizoko Taldearen baitan ere, bazen akuarelista talde bat akuarela-teknika defendatzeko elkarte bat abian jarriko zuena, gorago aipatu istiluan akuarela erdeinuz “*arte txiki*”tzat hartu ondoren: Juan de Aróstegui, Jesús Uribe, Arturo Martínez Taubmann, Antonio Santafé Largacha, Manuel Urquijo, Emilio Azaola, Antonio Urbezo, Carlos Arana, Antonio Frade, José María Legórburu. Juan antonio Frade Prieto (“*K. Toño*”), Rogelio Blasco, M. Álvarez Ajuria, José Ribera Font (“*S. de Albi*”), Nicolás Alzola, Luis Astorqui, eta garrantzi txikiagoko besteren bat. Largachak izan ezik, olio eta akuarela partekatzen zituen, besteek lehentasuna akuarelari ematen zioten. Lehen elkartu hauek ohar bat argitaratu zuten, akuarela-mugimendu honekin bat egin nahi zuten zale guztiei gonbidatzen.

XIX. mendeko hastapenetik, nola Europar hala Amerikan, akuarelistak elkarteetan batzeko ohitura zabaldua zen, beren interesak defendatzeko. Abiapuntua *Royal Watercolours Society*aren sorreran dago, Londresen 1804ean gertatu zena. Elkarte honek akuarelistei publikoaren aurrean erakusteko aukera ematea beste helbururik ez zuen. Garai haietan erakusketak egiteko ia leku bakarra *Londreseko Errege-Akademia* zen, baina pribilegio hori ukatzen zien. Gizarte britainiarrak akuarelari emandako sostengua horren erabakigarria izan zen, non 1833an akuarelara bakarrik dedikatutako bigarren elkarte bat fundatu baitzen, *The Royal Institute of Painters in Watercolor*. Hala ere, nahiz eta bere kideen artean puntako artistak izan, gizarte honek inoiz ez zuen lortu lehen gizarte britainiarrak zuen maila. Horren ondoren etorri ziren *Royal Scottish Society of Painters in Watercolours*, *American Watercolor Sociietya*, *Frantziako Akuarelisten Elkartea* eta antzeko erakundeak kontinente europarreko herri nagusietan.

Espainian, Bartzelonan, bazen ospe handiko elkarte beterano bat, *Agrupación de Acuarelistas de Cataluña* izenekoa, 1919an birfundatua. Hain zuzen ere, 1944 urtean kataluniarrek XXV. urteko oroigarritzko erakusketa handi bat burutzen ari ziren. Erakusketa honek bidea erakutsi zien kataluniarrekin eta madrildarrekin harremanetan zeuden euskaldunei. Beraz, Bilbon *Suizoko Taldeko* akuarelistak *Salón Nacional de la Acuarela* bat prestatzen hasi ziren, gure hirian 1944ean zabaldu zen *Sala de Artesanía Española* eskaintzen zuen aukeraz baliatuz, eta halako tamaina handiko erakusketa onartzen zuen areto bakarra zelako.

Salones Nacionales izenekoak direla eta, argitu behar dugu horrela deitzen hasi zitzaizela estatu osoko pintoreek parte hartzen zuten akuarelisten erakusketei. 1952 urtean Madrilen *Consejo Nacional de la Acuarela* sortu zenean, ordurako sortuak ziren sei elkarteetan (Bartzelona, Bilbo, Madril, Valentzia, Balearrak eta Kanariak) jarduerak koordinatzeko funtzioarekin, *Salones Nacionales* antolakuntza erakunde horren menpera pasatu zen. Euskaldunei dagokienez, *Euskal Akuarelarien Elkarteak* *Akuarelararen I. Areto Nazionala* antolatu zuen (*Sala de Artesanía Española*, 1945), *Akuarelararen II. Areto Nazionala* (Bilboko *Arte Ederren Museo* zaharra, Atxuri, 1946) eta *Akuarelararen IV. Areto Nazionala* (1963), azken hau aipatutako *Consejo Nacionalaren* menpeko.

Akuarelararen I. Erakusketa Nazionala Bilbon

Elkartearen sortze-jatorrian zegoen kritikak istilua gertatu zenetik 15 hilabetera oraindik ere erre egiten zuen, Aróstegui Barbier-ek kontatzen duenaren arabera: “*Giroa sortzeko asmoz eta akuarela arte txikia ez dela erakusteko, gure Lehen Erakusketa Nazionala burutu genuen, zeinaren inaugurazio-ekitaldia 1945eko Urtarrilak Ieko eguerdian izan baitzen, Artesanía Españolako lokaletan, (...), agintariak eta Maeztu eta Quintín Torre artistak bertaratu zirelarik (...)*”. Erakusketa honetan Kataluniako, Madrileko eta Euskadiko akuarelista onenak zeuden, hildako artisten obrez gainera, erakusketa hauetan ohikoa zenez.

Artesanía Españolaren lehen kokapena *Seguros Aurora* eraikuntza izan zen, Bilboko plaza Eliptikoan, Manuel Ignacio Galíndez (1934) arkitekto bilbotarraren obra, modernismo vienarraren inspirazio argia. *Obra Sindical de Educación y Descanso*ren menpean zegoen erakunde horren izen ofiziala *Mercado Permanente de Artesanía* zen, eta aipatutako plaza eta Gran Vía arteko erakuntzaren zati handi bat hartzen zuen, bi solairutan: merkataritza-lokal bat kalearen mailan, artesanía-produktuen denda zena, eta soto-solairu bat, erakusketa aretoarekin. Honen inaugurazioa Ignacio Zuloagak egin zuen 1944ko Abuztuaren 20ko eguerdiko 12etan, Bilboko jaietan, erakundearen inaugurazio orokorraren ekintza nagusia eta propagandistikoa izan zelarik. Eibarko pintore ospetsuak, hurrengo urtean hilko zenak, erakusketa honetan 20 oihal eder aurkeztu zituen, Bilbon Zuloagak egindako erakusketetan obra kopuru handiena izanik. Zuloagaren erakusketari irailaren 10ean amaiera eman zitzaionetik lau hilabete pasa baino lehen, areto horretan bertan *Euskal Akuarelarien Elkarte*a aurkezpena egingo zuen bere *Primer Salón de la Acuarela*ren antolakuntzarekin.

*Euskal Akuarelarien Elkarte*a” oraindik eratu gabe zegoelako, azalean *Grupo del Suizo. Bilbao* anagrama agertzen zuen katalogo txiki bat editatu zen. Testu labur bat zen hitzaurrea, *J. de A.k* (Juan de Aróstegui) sinatuta, non akuarelararen historia oso laburki eta azaletik azaltzen baitzuen; lehen paragrafoan, Aróstegui zioen: “*Akuarelararen lehen Erakusketa honek ur pinturarako zaletasuna piztera dator, Bilbon hain gutxietsia edo gutxi balioztatuta dena, munduko parte guztietan gertatu den bezala,*”. Bere idatzia

ixten duen paragrafoan, premonitorioa izango den esaldi batez amaitzen du: “(...) *dударik ez erakusketa hau gure herrian akuarelaren erakusketen historian lehen koska izango dela*”. Izan ere, gaur egun arte, oso garrantzitsuak diren akuarela-erakusketa nazional eta nazioartekoetan Bilbo protagonista izango da, Elkartearen argitalpen ugarien bidez egiaztatu ahal dugun bezala.

I Salón de la Acuarela en Bilbao honekin, *Salón de Artesanía*n 49 pintoreen 76 obra bildu ziren, bi taldetan banatuta: Zendutako artistei zegokien *Atzerabegirako Pintura* (9 autore 14 obraz), eta bizi zirenei zegokien *Pintura Garaikidea* (40 autore 62 obraz).

Atzerabegirako Pinturaren obrak hurrengo artistei zegokien: Juan Amann, Juan de Barroeta, Francisco Bringas, M. Castaño, Mariano Fortuny, Adolfo Guiard, Anselmo Guinea, Eugenio Lucas eta Sanz delako bat. Obra hauek eta Garaikideetako batzuk bildumazale bilbotar hauek utziak izan ziren: Gaminderen alarguna, Joaquín Urigüen, Julio Escauriaza, Severino Achúcarro, Agustín Herrán, J. Somme, Ramón Pradera, Luis Jáuregui, A. Martínez, *Museo Artiach* eta *Bilboko Arte Ederren Museoa*.

Lehen Erakusketa honetan parte hartu zuten euskal artista eta, horrenbestez, “*historikotzat*” har ditzakegunak, honako hauek izan ziren: Matías Álvarez Ajuria, Juan Aróstegui Barbier (“*Tegui*”), Luis Astorqui, Emilio Azarola, Rogelio Blasco, Nicolas Alzola, Michel Farré, K. Toño Frade, Antón Santafé Largacha, Manuel Losada, Mario Losada, Gustavo de Maeztu, Arturo Martínez Taubmann, “*Raur*”, José Ribera Font (*S. de Albi*), Ricardo Sancristán, Antonio Urbezo, Manuel Urquijo, Jesús Uribe (*Jauri*) eta Valentín de Zubiaurre. Bereziki nabarmena izan zen euskal pintoreen lehen belaunaldietako 3 artisten obrak, Manuel Losada, Gustavo de Maeztu eta Valentín de Zubiaurrenak, sortu berria zen elkartearen ohorezko kide berehala izendatuak.

Antolatzaileek akuarelaren lehen erakusketa hau *Euskal Akuarelarien Elkartearen* gizarteko sarreratzat hartu zuten, eta ordutik izen horrekin ezagutua izango da. Gogora dezagun, debate ireki baten ondorioz, *Asociación Artística Vizcaína*ren izena aukeratu zenean, desagertutako *Asociación de Artistas Vascos* (1911-1937) elkartearen izena hartzea handiusteko zirudiela, sortu berriarena baina goratasun artistiko handiagokoa zelako. Batzuen iritziz, “*vizcaína*”ren ordezkari “*vascos*” jartzea erabaki zuten, azken hitz honek agintariei izua ematea zielako. *Euskal Akuarelarien Elkartea* izenak, ordea, horrela pentsatzen dutenak gezurtatzen ditu, “*vascos*” eta “*vizcaína*” hitz horiek kokatze geografikoari erreferentzia egiten diotelako, olio pintoreen kasuan kopuru handiko artista taldea osatzen zutelako, Bizkaiko akuarelistekin gertatzen ez zena, nahiz eta laster Arabakoak eta Gipuzkoakoak bat egingo zieten.

Nolanahi ere, izena ez zuten aukeratu erakusketan parte hartu zuten *Suizoko Taldearen* kideek. Gertatu zen *Akuarelaren I. Erakusketa Nazionala* Bilbon egiten ari zen egun horietan bertan, *Kataluniako Akuarelisten Elkarreak* bere XXXIV Erakusketa burutzen ari zirela. Erakusketa honen katalogoaren hitzaurrean, Manuel Risques akuarelista handiak eta kataluniarren presidentek, beste gauzen artean, honakoa zioen: “*Orain beste eginbehar bat bete dezagun, biziki atsegina guretzat, zeina EUSKAL AKUARELARIEN ELKARTEA berotasunez agurtzea baita, egun hauetan Bilbon bere lehen erakusketa burutzen ari dena (...)*. Eta hori izan zen hartutako izena, nahiz eta aipatutako hiru elkarten AAV haste letrek (*Artistas Vascos, Artística Vizcaína eta Acuarelistas Vascos*) kasualitatea ez eman.

Lehen Erakusketa Nazional honek “*arrakasta*” eta “*ezustekoa*” sortu zituen, akuarelak neurri handiko formatuetan Bilbon lehenengoz erakusten baitziren. Formatu eta neurri

hauek ez ziren ohikoak aipaturako artistek Bilboko galerietan egiten zituzten erakusketa komertzialetan. “*Luis de Andía*”k *El Correo Español-El Pueblo Vasco*ren orrietatik eta Enrique Besora-k Bilboko *Radio España* irratiatik azalpen zabalak eskaini zituzten erakusketa harrigarri honi. Ez ziren, ordea, bakarrak izan, eta *La Gaceta del Norte* eta *Hierron* gorazarreak agertu ziren. *Suizoko Taldeak* editatzen zuen *Boletín Informativo de Arten* ere Fermín García Ezpeletaren (“*Luis de Andía*”) kritika osoa errepikatu zen.

*Consejo Superior Consultivo de la Acuarela*k 1954etik aurrera antolatutako *Salones Nacionales de la Acuarela*ren katalogoetan artistak beren Elkarte diferenteetan batuta agertzen ziren. Azaltzen ari garen Bilbokoan ezin izan zen horrela egin, 1945eko Urtarrilean, eratutako elkarte bakarra *Kataluniako Akuairelisten Elkarte*a baitzen. Sailkapen hau *Agrupación Española de Acuarelistas*ek egindako erakusketa handian egingo da lehenengoz. Elkarte hori Madrileko akuarelistek maiatzaren 18an izen horrekin sortu zuten, XIX. mendearen amaieran itxi zen *Sociedad de Acuarelistas* delakoa ordezkatzeko. Azken hau Chinchilla kaleko lokal xume batean zegoen eta bertara pintatzera joaten ziren Fortunyren garaiko aguretxoak, haien artean gure Eduardo Zamacois 1870ean Paristik itzultzean. Erakusketa 1945eko Azaroaren 15ean egin zen 342 obreakin. Artistak elkarte hauetakoak ziren: *Agrupación de Acuarelistas de Cataluña*, *Agrupación de Acuarelistas Canarios*, *Euskal Akuairelarien Elkarte*a eta *Agrupación Española de Acuarelistas*. Madrileko *Salones de la Sociedad Española de Amigos de Arten* egin zen erakusketa honi ere *Primer Salón de la Acuarela en Madrid* izena eman zitzaion.

Erakusketa hau aparteko hotsanditasunez izan zen inauguratua, Arte Ederren Zuzendari Nagusia, Lozoyako Markesa, buru zelarik, Hezkuntza Nazionalako Ministroaren ordezkari gisa. Bertara agertu ziren ere Saracho Ibáñez de Aldekoa anderea, Kanpo Arazoetarako Ministroa zen Martín Artajo Jaun Txit Gorenaren emaztea; Iñiguez Jauna, Ondare Artistiko Nazionalako Komisarioa; Segurtasuneko Zuzendari Nagusia; Esteve Botey jauna, Elkarte antolatzailearen Presidentea; José Francés jauna, Arte Ederren Akademiako Idazkari Betikoa; Bellamarreko Markes jauna eta beste pertsona ospetsuak.

Euskal artisten aldetik, Elkarteak honako 19 artista hauetako 34 obra aukeratu zituen: *Gasteiztik*, Juan Díaz de Munain eta Enrique Suárez Alba; *Donostiatik*, Agustín Ansa eta Luis Hoyos de Castro; *Bilbotik*, *S. de Albi*, Álvarez Ajuria, Aróstegui, Azarola, Bengoa, Lorenzo Borque, Landa, Largacha, Legórburu, Lerchundi, Martínez Taubmann, Sancha, Uribe, Urquijo eta María Luz Zaldúa. Badirudi gure Elkarte berria probintziak antolatzen haste dela, eta nabarmentzekoa da ere emakumezko baten presentzia, ordura arte ez ohikoa eta duela zenbait urtera arte errepikatuko ez dena.

A. S. Largacha gure pintorea erakusketa horretan egon zen. Bonnin, Esteve Boty, Felipe Trigo, L. Butler, Vargas Ruiz eta beste batzuen akuarelak nabarmendu eta gero, laburbilduz honela zioen: “*Erakusketa atsegina da, balio artistikoa du eta uste dut, harrokeria handia ibili gabe, akuarelista espainiarrak atzerriko onenekin elkar harturik ibili daitezkeela*”. Baieztapen hau arinkeria hutsa da, Largacha ez baitzen atzerriara bidaiatu Marokora izan ezik, ezta Turner, Constable, Bonington, Delacroix edo Ingres-en akuarelak ikusi behin eta berriz erabilitako erprodukzioetan ez bazen. *Euskal Akuairelarien Elkarte*aren kideei buruz, ez zuen banakako iritzietan sartu nahi izan, eta jarrera apain eta zuhurra hartu zuen, “*taldea badugu*”la esanez.

Arturo Martínez Taubmann-ek ere *Boletín Informativo de Arten* (35. zbkia., 1945eko Azaroa) bere iritzia eman zuen kalitate handieneko obrak bidaliko zituzten artistak nabarmentzeko: Miguel Farré, Ramón Reig, Francisco Boninn, Federico Loveras,

Ceferino Olivé, Roig-Enseñat eta Genaro Lahuerta. Euskaldunei buruz Taubmann-ek “*eginkizun apala baino gehiago egitea*” espero zuen.

Bilbotik urrun burututako gertakizun honetaz luzeegi aritu bagara, Espainiako Akuarelaren historian mugarri bat jarri zuelako izan da soil-soilik. Oso bultzagarri garrantzitsua izan zen elkarte sortu berrientzat, eta hauen artean *Euskal Akuarelarien Elkarteak* jarduera bizi-bizia erakutsiko du.

Euskal Akuarelarien Elkarteak, nahiz eta *Asociación Artística Vizcaínatik* bereizten zuen izena laster izan, honen gerizpean bizi izan zuen aldi batean, kide guztiak elkarte biei atxikituta zeudelako. Honen lokalak (Gran Vía, 20 1. ezk.) erabiltzen zituzten, Ledesma kalera ematen zuten leiho zabalekoak. Eta bere jardueren albisteak gorago aipatutako *Boletín Informativo de Arten* agertzen ziren. Elkarteak 1953ko Urriaren 20an eratzen da ofizialki eta egun berean Estatutuak finkatzen dira. *Consejo Consultivo Nacional de la Acuarela* (Bartzelona, 1954) *I Salón Nacional de la Acuarela* antolatzen zuenean ofizialtasun hau behartu zuen, bertan parte hartzeko beharrezkoa zelako Elkarteak ofizialki erregistratuta izatea.

Aróstegui, aipatutako bere liburuan, *Primer Salón Nacional de la Acuarela* kapituluaren ondorengo batean honela dio: “*Euskal Akuarelarien Elkartearen Zuzendaritza berria bere sortzea dela eta*”. Euskal Akuarelarien Elkartearen Batzar nagusia biltzean, akuarelari dagozkion gaietan erabaki garrantzitsuak hartzeaz landa, Zuzendaritza berri zuten, honela osatuta:

Presidentea	Juan Aróstegui
Presidenteordea	Jesús de Uribe
Gipuzkoarako presidenteordea	Agustín Ansa
Arabarako presidenteordea	Enrique Suárez Alba
Idazkaria	Arturo Martínez Taubmann
Idazkariordea	Emilio Azarola
Diruzaina	José Ribera
Kideak	Antonio Santafé Largacha Juan Frade K’Toño Manuel Urquijo

Harritzekoa da “*Zuzendaritza berria*”ren aipamena, elkarteak oraindik eratu gabe zegoenean. Edozein modutan ere, *berria* izateko eta karguak berri ahal izateko, *aurreko Zuzendaritza* bat egon behar zuen. Seguru asko, Erakusketa Nazionala antolatzen zuen aurreko Batzar bat egongo zen, eta erakusketa hori arrakastaz burututakoan berri egingo zen. Aipatutako filiazioa gorabehera, argi dirudi *Euskal Akuarelarien Elkarteak* antolatze-mailan *Asociación Artística Vizcaínatik* aparte aritzen zela.

Akuarelaren artea jandarteratu eta teknika horren maila goratu zuten hasierako Elkarteko kide guztien artean, Juan Aróstegui Barbier (Gernika, 1899 – Bilbo, 1988) aipatu behar da. Elkartearen lehen presidentea izan zen eta, ondoren, hil zen arte, *Asociación Artística Vizcaína* eta *Euskal Akuarelarien Elkartearen* Ohorezko Presidentea. Medikuntzan doktorea Odontologia adarrean, idazle oparoa eta akuarelista grinatua, *Suizoko Taldearen* sorreratik bere azken egunera arte langile nekazina izan zen. Hain egun berezian, ezin dugu gure oroitzapena eta esker ona agertu gabe utzi bi elkarte kultural hauen egiazko sortzaileari.

Bere ahizpa den *Asociación Artística Vizcaína* bezala, *Euskal Akuarelarien Elkarteak* gaur egun ere bere jardunari eutsi egiten dio, bai Aróstegui Barbier bera bai eta kide sortzaile baikorrenak ere harrিতa uzteko neurriraino. Horren erakusgarria da 68 urteetan zehar etengabeko jardueraren ondoren egiten dugun BERREHUNGARREN ERAKUSKETA KOLEKTIBOA. Salones Nacionales de la Acuarela direlakoetan parte hartu duten beste erkidegoetako elkarteek ere bizirik diraute: Kanariak, Katalunia, Madril eta Valentzia, eta urteak joan urteak etorri berauei gehitu zaizkien beste batzuk ere, hala nola, Andaluzia, Aragoi, Asturias, Balearrak, Gaztela eta Leon, Ceuta, Galizia, Girona eta Segovia, Museu de l'Aquarel.la – Fundación Martínez Lozano (Llançá-Girona). Hauei guztiei bizitza luze eta emankorra.

Bilbon, 2013ko Otsailean
Juan Manuel Lumbreras Cañada
Euskal Akuarelarien Elkartekoa

Itzulpena: Juan Domingo Barahona Prol